

“Euskal Gizartearen Egoera” ikerketa-sariak

euskal jendartearen egoera sozialari buruzko ikerketa-lanak saritzen ditu, beren kalitateagatik, zehaztasun zientifiko-teknikoagatik, planteamenduaren nahiz metodologiaren originaltasunagatik edota beren ikerketa alorrean berritzaile izateagatik nabarmentzen direnak.

Sariaren diru kopurua: lehenengo sariarentzat 7.300 euro eta 1.700 euro akzesitarentzat, hala badagokio.

Norentzat: goi-mailako tituludun izan eta lanak aurkezteko epea bukatzen denean **35 urte baino gutxiago** dituztenentzat. **Bakarrik** edo **taldean** (kasu horretan, guztiek bete behar dituzte baldintzak eta ikerketa-buru bakarra izendatu) aurkeztu ahal dira, baina ez pertsona juridikoen izenean. Ezingo dute sari honetara aurkeztu Administrazio Publikoetako langileek, baldin eta ikerketa-lana beren lanarekin batera burutu badute, edo ikerketa-lana beren lanbidearekin elkarlotuta dagoenean. Unibertsitate-irakasle guztiek, berriz, parte hartu ahal izango dute.

Ikerketa-lanek argitaragabeak izan behar dute, eta deialdiaren aurreko bi urteetan egindakoak. Defendatutako doktoretza-tesiak aurkez daitezke, baldin eta argitaratu barik badaude.

Lanetan garatutako informazioak, ahal den neurrian, genero ikuspuntua eta hizkuntzaren erabilera ez sexista kontuan izango dituzte.

Ikerketa gaiak Euskadiko egoera soziopolitikoak hobeto ezagutzen edo egoera soziopolitiko hau ikertzeko teoria edo metodologiak garatzen lagundu behar du.

Metodologia kuantitatiboa zein kualitatiboa erabil daiteke.

Lanaren hizkuntza: euskara edota gaztelania.

Epaimahaiaren osaera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Sariaren esleipena, eta akzesitarena ere, hala badagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta zuzenean jakinaraziko zaie irabazleei. Aurkezten direnetik hiru hilabetetara erabakiaren berririk jasotzen ez duten lanak gaitzetsizat joko dira. Saria eman gabe gera daiteke, bai osorik, bai zati batean.

Saritzen diren ikerketa-lanen gaineko eskubideak, lanak ustiatzekoak alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa pasatuko dira, doan eta eskusiboki. Administrazioak beretzat gordetzen du lanak argitaratzeko eskubidea.

Hautagaiak aurkezteko tokia, modua eta dokumentazioa:

Bitarteko hauetakoren bat erabiliz egin daiteke:

a) Aurrez aurre Herritarren Arretarako Eusko Jaurlaritzaren bulegoetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak baimentzen duen edozein eratan. Euskal Gizartearen Egoera Sariaren 2016ko deialdira aurkezteko dela adieraziz, honako helbidera zuzendu:

**Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza
Azterlan Kabinetearen Zuzendaritza
Nafarroa kalea, 2 - 01007 Vitoria-Gasteiz**

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa da:

1) Ikerketa-lana euskarri informatikoan (PDF formatuan) eta, alternatiboki, paperean (DIN-A4, koadernatu gabe).

2) Memoria (espazio bikoizdun 5-10 orri bitartekoa) ikerketaren helburuak, gaiaren justifikazioa, erabilitako metodologia, ikerketak hartutako denbora-tartea, ekarpen berriak eta abar azalduz.

3) Gutun-azal itxian sartuko dira **egilearen edo egileen datu pertsonalak** (izen-abizena, NAN, helbide postala eta elektronikoa, telefonoa), **curriculum vitae(k) laburra**, lizentziatu edo gradu **tituluaren fotokopia(k)**, **ikerketa-lanaren jatorrizko titulua eta erantzukizun-aitorpenak** bete eta sinatuta (http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak orriko Euskal Gizartearen Egoera Saria atalean aurkituko duzue jaisteko ereduak). Gutun-azalaren kanpoko aldean aurkeztutako lanaren izenburua bakarrik jarriko da.

Memorian zein ikerketa-lanean ikerketaren jatorrizko titulua ezkutuko titulu edo lema batengatik ordezkatu da, lana izenpetu gabe edo ezizen batekin sinatuko da, eta egileen identitatea zein lana egin edo aurkeztu den ikerketa zentroa jakinarazten edo ezagutzera eman ahal duen daturik ez da jarriko.

b) Bitarteko elektronikoen bidez, www.euskadi.eus egoitza elektronikoen honako URLean: https://www.euskadi.eus/dirug_laguntza/2016/euskal_gizartea_saria/y22-izapide/eu

URL horretan ezarritako prozedurari jarraituz, egile edo egileei buruz eskatutako datuak bete eta **ikerketa-lana eta memoria** –goian aipatutako informazioa jasoz– erantsi beharko zaizkio.

Lanak aurkezteko epea: 2016ko irailaren 13ra bitartean.

Informazio gehiago: Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinete 945 018 069 telefonoan (Kontxi) edota honako web orrian:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak



EUSKAL GIZARTEAREN EGOERA SARIA 2016KO DEIALDIA

Informazioa: 945 01 80 69 telefonoan edo http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**